

# mugimenduan

Kristina Kočan



Itzulpena: Garazi Ugalde Pikabea

**bestehitzak**  
||| |

**drugebesede**  
||| |

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



**mugimenduan**

Kristina Kočan

**migrazioak**

lertxun enbor beltzetatik

lekutu ziren hosto horiak

beste inora

paseko txoriak gara izan

lurretatik jendearengandik

geure baitatik bidea

da babes bakar

mugimenduan beti

itzultzeko promes bat

ez besterik salbatzen ote gaitu

joateak are

joan aurretik ere

erdi lo

erdi esna gaudela

azpian zaizkigu

ibaiak loratzen

hosto koloretan

eguzki urrekarak

berotzen gaitu

oroimenean burubeltz baten

pisua ahurrean

edo kilker bat

## hegeberak

hor datza itsasoa

ispiluzko erreserba zabal

gu gauden presa

honetatik urrun

mastak lumaje bila

haizea arin irla

ia ikusezinetara

ondoan poemak xuxurlatzen

dizkiogu elkarri mintzaira

arrotzetan belarrira

gainean hotzeko zingiretako

belazeetako kosta txoriek

ehizean segitzen dute

ilargiaren mendean

gauak gainezka intsektu

tunelez kide leialei fidel

haizea eta heriotza

txilio mistiko batean

herriminak barnago estutzen du

orain lainoa orain larrea

orain olatuak orain

itsaso barea

hurbil dago

begi kolpe batez

distira berdean

gorputzaz eztarriaz

begi ilunduaz

iparrorratz batekin nola

berotasunerantz

## *Tijger*

denok inorena ez den besarkadan  
zama astuna xuxurlaka  
inorena ez den belarrian ilunpera  
begiradak finko distantzian  
emakume ahotsak  
txistulari zer hots du  
ozeanoak aire geldotan  
iluna ala urdin argia ote  
Hudsoneko ura hotz  
orratza iparrerantz begira egurra  
karraskan pisu osoz  
sutan euri hila  
elur gero izotz gero  
hezur hurbil dira  
indioilarrak  
izar dardartiak hor daude  
nonbait oskarbituko ote duen  
beste negu batez iraungo ote duten  
esperantzan

## *Leeuw*

atzean uztea goizeko mezaren babesa  
adreilu gorrizko elizarena koruko  
ahots mutuen oihartzuna  
itsaso uher baterantz jotzeko non  
atzo bertan sardinzarrak atera zituzten  
afaritarako hondakin zaharretan biziari eusteko  
egiazki itsasora jo aurretik tropikoetako  
izarrak brankan piperbeltza esperoan  
zapore mina espezia uharteetan Bengala  
ehunezko kaleidoskopioa kartsu sutan  
ilenak horditzen du sorterriaren gomuta  
marguldua soilik Gangesen arretasunean  
kanela larrua bular epelak lehoidun  
kaiola irekia

## Medusa

lur zati dirdaitso bat  
platino antzeko hondartza zabal bat  
bide luze bat itsasora  
inguruko dunetatik oinuts  
hori da guretzat  
edertasuna igerian aske dabilen  
marmokaren mugida taupa-taupa  
itsasbeheran zain  
marearekin noiz haziko  
korronteak noiz eramango  
dantzari itsastar askea  
bata bestearen aurka eta uraren aurka  
talka leunez  
ahal bezain urrun heltzeko  
arrasto arinak haizetan  
ez du lilurarik harrapatzeak  
handitasun barean  
nola piztia bat kaiolan nola tximeleta bat  
kristalaz bestalde ile artean atzemanak  
suntsitzen du bera  
itsaso barean isil-gordeka  
hodeien islan landare urtarrak  
gozo loretan

## *Skier*

sandaliak eskuetan oinak  
etsia hartuta dunetan biraka  
hegazti urtarrak haizetan gora  
askatuz ideien katramila zirimolatu  
geldiaraziz airean hegaldia bultzada bat  
ito da melodia ahantzi batean  
maitasunera lerratzen gara  
une batez elkarrekin  
makurtzen gara irla  
galdu bat are mamu bat  
da mendetako zeharkaldian doan galera  
hegorantz eta ekirantz  
haren mastak itsasargi  
haren belarra bazka gozo  
akitu eta galduentzat  
ostra-biltzaileak mokoka  
hondo lohitsu  
non mareak estalgabetzen duen  
basabizitza misteriotsua  
haiek berriro jainkotiartzeko  
arrats argi nabarrean